

## Eguneko zentroaren zerbitzua adinekoentzat.

**Prestazio mota:** Bermatu gabekoa.

**Baliabide mota:** Eguneroko arreta zerbitzua (egunekoa).

**Baliabidearen xedea:** Berariazko establezimendu batean **egunez** emandako zerbitzua, **behar pertsonal oinarritzakoak eta soziokulturalak asetzeko, eta ohiko ingurunetik ez mugitzeko erraztasunak eman eta zaintzaileei laguntzeko.**

**Onuradunak:** 65 urtetik gorakoak.

**Jasotzeko baldintzak:**

- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziak emandako egokitasun txostena.

**Zerbitzua irekita:** Urteko lan egun guztietan, astelehenetik ostiralera, gutxienez 7 orduko zerbitzuarekin.

**Zerbitzuaren intentsitatea:** Programa harrera eta lehen balorazio fasearekin hasiko da, eta banakakoaren arreta plan bat diseinatuz, laguntza beharrak, helburuak, bete beharreko jarduerak eta horien intentsitatea barne hartuta.

- Jantokiko zerbitzua: bi otordu egunean.
- Laguntza eta gainbegiratzea eguneroko bizitzako jardueretan: egunero.
- Zainketak: egunero.
- Arreta soziala: jarraipenekoa, lau hilean behin.
- Arreta medikoa: jarraipenekoa, sei hilean behin.
- Terapia okupazionala: lanegun guztietan, astelehenetik ostiralera.
- Gaitasun sozialak eta komunitatean integratzea: astean behin.
- Aisia eta denbora libreko jarduerak: jarraipenekoak, astean behin.
- Familientzako laguntza: jarraipenekoa, lau hilean behin.

**Ebazteko epea:** Hiru hilabete.

**Ordainketan parte hartzea:** Bai.

**Jarduteko eremua:**

Nafarroako Foru Komunitatea.




---



---



---



---



---



---